



ZIZURKILGO EKINTZA PLANA



LE1. INGURUMENA KALTETU GABE, TOKIKO ENPLEGUA SUSTATZEKO GARAPEN EKONOMIKOA BULTZATU

LE2. BIZTANLERIAREN ONGIZATEA ETA BIZI KALITATEAREN HOBEKUNTZA SOLIDARIOA SUSTATU

LE3. HIRI INGURUNEAREN ETA INGURUMEN ZERBITZUEN HOBEKUNTZA ETA PLANEAMENDU IRAUNKORRA BERMATU

LE4. BIOANIZTASUNA ETA PAISAIA BABESTU ETA UDALERRIKO GUNE ETA ELEMENTU ESANGURATSUAK EZAGUTARAZI

LE5. HERRIKO MUGIKORTASUN BEHARRAK IRAUNKORTASUN IRIZPIDEEKIN ASE

LE6. HERRITARREKIKO KOMUNIKAZIOA ETA HERRITARREN SENTIKORTZE ETA PARTEHARTZEA HOBETU

LE7. UDAL KUDEAKETA HOBETU IRAUNKORTASUN IRIZPIDEAK TXERTATUZ



ZIZURKILGO EKINTZA PLANA



LE1. INGURUMENA KALTETU GABE, TOKIKO ENPLEGUA SUSTATZEKO GARAPEN EKONOMIKOA BULTZATU

P.1.1. Dibertsifikazioa bilatuz, enpresa ekimen berriak babestu eta sustatzeko programa

E.1.1.1. Zerbitzu enpresak nahiz dendak ezarri daitezen baliabideak jarri

E.1.1.2. Enpresa ekimen berriak sortzeko eta daudenak mantentzeko laguntza eskaini Tolosaldea Garatzen Agentziako zerbitzuen bidez. (Tolosaldea Garatzen)

P.1.2. Lehen sektorearen sustapen ekonomikorako eta babeserako programa

E.1.2.1. Bertako produktuen eraldaketa egiteko gune bat egokitu

E.1.2.2. Bertako produktu eta produktu ekologikoen salmentarako toki bat egokitu

E.1.2.3. Hiri antolaketa eta AASSak direla eta galtzen den nekazal eremua beste nonbaiten errekuaratzeko konpromisoa hartu

E.1.2.4. Baserriak beregain duen paisaiaren eta ingurunearen kudeaketa administrazioetik lagundua izan dadin lan egin (dirulaguntzak terrenoak garbi mantentzeko,)

E.1.2.5. Bide garbiketa egin bertako baserriarekin (baserriko ekonomiarentzat lagungarria izan dadin)

E.1.2.6. Labeldun produktuak/ produktu ekologikoak/ kalitatearekin loturiko ziurtagiridun produktuen ekoizpena bultzatzen jarraitu. (Tolomendi)

E.1.2.7. Nekazal lurren inguruan egoera txarrean aurkitzen diren hesiak konpontzeko heskaien (setos vivos) ezarpena sustatu, esaterako autobidearen alboko Aldundiaren ardurapean dauden hesietan. (Gipuzkoako Foru Aldundia)

E.1.2.8. Gazteak nekazaritza munduan sartzeko aukerak aztertu Tolomendi Tolosaldeko Landa Garapen Elkartearekin elkarlanean. (Tolomendi)

E.1.2.9 Abeltzaintza intentsiboa ez den nekazaritza ekologikoa sustatu (Tolomendi)

E.1.2.10. Ingurumen jardunbide egokiak nekazal sektorean sustatu (Tolomendi)

P.1.3. Udalerrian merkataritza sektorea indarberritzeko programa

E. 1.3.1. Zizurkilen hirugarren sektorea garatu dadin plangintza bat burutu: tokiak egokitu, laguntza plan bat garatu,....

E. 1.3.2. Herrigunean kokatzen diren salmenta puntuak bultzatu (eta ez herri kanpoko merkatal zentroak)



ZIZURKILGO EKINTZA PLANA



E.1.3.3. Tokiko merkataritza mantendu eta indartuko duten politikak martxan jarri. (Tolosaldea Garatzen)

E.1.3.4. Informazio kanpainen bidez tokiko kontsumoa iraunkorra sustatu herritarren artean (esaterako, kanpora joateak suposatzen duen guztizko gastu handiagoa mugikortasuna kontutan izanez gero, etab.) (Tolosaldea Garatzen)

P.1.4. Turismo garapen eta sustapenerako programa

E. 1.4.1. Mendi ibilbideak diseinatu eta seinalezatu

E. 1.4.2. Mendi ibilbideak, herrian kokatzen diren eskaintza turistikoak eta herriko gauza esanguratsuenak aditzera ematen duen euskarria argitaratu

E. 1.4.3. Aterpetxe bat eraiki

E.1.4.4. Tolosaldea mailan eginiko Turismo Plana iraunkortasun irizpideak txertatuz garatu. (Tolosaldea Garatzen)

P.1.5. Pertsona guztien lan-bideratze eta aukera berdintasunerako programa

E.1.5.1. Garapen Agentziako ekintzen inguruko informazioa zabaltu (prestakuntza ikastaroak, enpleguarekin erlazionatutako zerbitzuak eta bere funtzioak, beste inizatibak...) langabezia dauden sektoreetara. (Tolosaldea Garatzen)



ZIZURKILGO EKINTZA PLANA



LE2. BIZTANLERIAREN ONGIZATEA ETA BIZI KALITATEAREN HOBEKUNTZA SOLIDARIOA SUSTATU

P.2.1. Biztanleriaren beharrak aseko dituen etxebizitza politika iraunkorra garatzeko programa

E. 2.1.1. Gazteak herrian integratuko dituen etxebizitza politika garatu:

- Babes ofizialeko etxebizitzak jabetzan naiz alokairuan eskaini
- Udalak etxe azpi hutsak erosi eta gazteentzako alokairu mugatuko apartamentuak eskaini

E. 2.1.2. Udalak promozionatzen dituen etxebizitzetan bertakoei lehentasuna eman

E. 2.1.3. Eraikuntzako iraunkortasun irizpideen inguruko azterketa eta hausnarketa egin

P.2.2. Hezkuntza zerbitzuak sortu eta garatzeko programa

E.2.2.1. Eskolaz kanpoko hezkuntza proiektuak bultzatu (udaleku irekiak, eskolaz kanpoko ikastaroak, e.a.)

E.2.2.2. Herriko hezkuntza zentroetan Eskolako Agenda 21 bultzatu (

E.2.2.3. 0-3 urteko haur eskolaren funtzionamendua bermatu

E. 2.2.4. Udalerrian bigarren hezkuntzako zentro bat irekitzeko aukera aztertu

E. 2.2.5. Herrian dauden hiru ikastetxeen beharrei erantzuna eman

E. 2.2.6. Ikastetxeen arteko koordinazioa bultzatu

E. 2.2.7. Hezkuntza Batzordea osatu ikastetxeetako ordezkariekin batera

- maiztasun finkoa duen lana burutu

E. 2.2.8. M. Otaño eskolan 2 urtekoen gela egokitu

E. 2.2.9. San Millan eskolako jangelaren arazoari irtenbidea eman

P.2.3. Udalerriko gizarte zerbitzuen baldintzak egokitzeko eta garatzeko programa

E. 2.3.1. Aiztondo Zerbitzuen Mankomunitateak ematen dituen informazio, balorazio eta orientazio zerbitzuak ematen jarraitu. Eskubide eta egungo baliabide guztiei buruzko informazioa eman. Zerbitzu edota prestazio egokienei buruzko orientazioa eman eta kasu bakoitza baloratu

E. 2.3.2. Gizarteratze prozesuan laguntzeko eta oinarrizko beharrak estaltzeko dauden prestazioak kudeatzen eta bideratzen jarraitu:



ZIZURKILGO EKINTZA PLANA



- Gizarteratzeko Hitzarmenak: Gizarteratzeko behar adina baliabide egon ez arren, Gizarteratzeko Teknikarien laguntzaz, gizartean eta lan munduan sartzen laguntzeko beharrezkoak diren ekintzak jasotzen dira(Auzolan Programa, Inem-eko tailerrak, ikastaroak...)
- Oinarrizko Errenta (Renta Básica): oinarrizko gastuei aurre egiteko laguntza ekonomikoa.
- Gizarte Larrialdietarako Laguntzak (Ayudas de Emergencia Social): Gastu bereziei aurre egiteko dirulaguntzak.

E. 2.3.3. Babesik gabe geratzeko arriskuan dauden haur eta nerabeak dituzten familietan esku-hartzeko programak lantzen jarraitu (terapia familiarra, hezitzaileak familietan..e.a.)

E. 2.3.4. Herri ingurunean, adintxiki edo nerabeekin, esku-hartze programak garatu.

E. 2.3.5. Tratu-txarrak edo sexu erasoak jasan dituztenei laguntzak eman – bideratu. (harrera etxeak, laguntza psikologikoa , aholkularitza juridikoa...e.a.)

E. 2.3.6. Gizartean (herrian, eskolan..) sor daitezken arazoei aurre egiteko prebentzio zein sentsibilizazio programak landu (Drogomenpekotasun programak, Emakumeen eta Gizonezkoen Berdintasunerako programak...e.a.)

- Osasunkume Programa eskaintzen jarraitu (drogomenpekotasunaren prebentziorako eta osasun heziketarako programa da).
- Guraso eskolak edo Gurasoen arteko topaketak antolatu

E. 2.3.7 Pertsona ezinduen eta adineko pertsonen bizi kalitatea hobetzeko, hauekin bizi diren senitarteko edota zaintzaileei laguntza emateko eta ohiko bizilekuan mantentzeko programa eta zerbitzuekin jarraitu

- Etxez etxeko Laguntza Zerbitzua
- Tele-alarma Zerbitzua
- Zizurkilgo Pisu Babestua
- Eguneko Zentroak
- Aldi Baterako egonaldiak
- Harrera Familien Programa
- Sendian programa
- Laguntza Teknikoak
- Estazionamendu Txartela
- Bono- Taxi Programa
- ...e.a.

E. 2.3.8. Bizilekuan jarraitu ezin dutenentzako zerbitzua eskaintzen jarraitu



ZIZURKILGO EKINTZA PLANA



E.2.3.9. Erniobehea mailan Drogomenpekotasuneko Prebentzio Plan bat burutu (UT21 Ernioaldea / Tolosaldea Garatzen)

E.2.3.10. Gizarte zerbitzuen alorrean, herritarrek egun dituzten eta etorkizunean izango dituzten beharren azterketa bat burutu zerbitzuen inguruan aurreikuspen bat burutu ahal izateko (UT21 Ernioaldea)

P.2.4. Aisia, kultura eta kirol zerbitzuak eskaintzeko programa

E. 2.4.1. Herrian antolatzen diren kultur jardueretan parte hartzea hobetu eta handitu, herritarren ekimenak sustatuz.

- Antolatzen diren kultur ekitaldien zabalkunde egokia egin, honetarako pentsaturiko publizitate bideak eta komunikabide orokorrak erabiliz.
- Adin guztietako herritarren parte hartzea bultzatu antolatzen diren kultur jardueretan (haurrak, gazteak, bikoteak, familiak, adineko jendea, e.a.).
- Herritarren interesak kultur ekitaldietara eraman

E. 2.4.2. Kultur ekimenak sustatzeko programak mantendu

- Herriko elkarte eta taldeak lagundu eta beraien dinamika herriko kultur ekitaldietara eraman
- Elkarteen mantenua eta sortzea bultzatu

E. 2.4.3. Urte osorako kultur eta aisiarako kalitatezko programazioa landu eta herriko elkarteekin koordinatu.

- Zizurkil Goia eta Elbarrenako errealitatea kontutan izan kultur eta aisiako programazioa lantzerakoan.
- Hilero kalitatezko kultur eta aisiako ekitaldien programazioa burutu
- Kultur Batzordea indartu eta maiztasunez funtziona dezala lortu
- Festa Batzordeak indartu eta herriko festen programazioa gehiago landu, herriko jaiak indartuz

E. 2.4.4. Aisialdirako azpiegiturak sortu garai berrietara egokituz

- Haurrentzako parkeak herriko puntu desberdinetan sortu

E. 2.4.5. Kultur ekipamendu egokiak sortu, aurreikusten den eskaintza eta dagoen eskarirako

- Kultur ekipamendu osatua lortzeko inguruko herriekin koordinatu
- Kultur Etxeen birmoldaketa obrak burutu eta kultur EKIPAMENDU SAREA osatu (Atxulondo Kultur Etxea, Iriarte Etxea, auditoriuma, gaztelekua, ikastetxeen eraikina...)
- Loatzo musika Eskolaren garapen sostengarria bultzatu eta musika eta dantza herritarren artean zabaltzeko



ZIZURKILGO EKINTZA PLANA



E. 2.4.6. Gazteen beharrak aztertu eta beraiei zuzendutako politika garatu, beharren arabera baliabideak jarritz

- 12-13 urteko gaztetxoek topagunea martxan jarri, giza eta material baliabideak jarritz
- Gaztetxeen gazteekin akordio zehatzetara iritsi eta herriko dinamikan parte hartzeko bidea jorratu
- Gaztetxea bota eta gazteei zuzenduriko espazio egokia sortu
- Gazteei zuzenduriko ekintza zehatzak antolatu urtean zehar
- Villabonako kale hezitzaile eta gazte teknikariarekin batera antolatzen diren ekintzak koordinatu
- Villabonako Gazte Informazio Bulegoarekin elkarlana egin
- Gazteen intereseko gai berriak jorratu: etxebizitza, lana, etorkinak, aisia, oporrak, boluntarioak, e.a
- Gazteen partehartzea herriko organoetan bultzatu (batzordeak, festa batzordea, e.a.)
- Gazte eta beste adinetako pertsonen arteko harremanak bultzatu

E. 2.4.7. Kirol instalazioen azterketa egin eta herriak behar dituen kirol instalazioak osatzeko baliabideak bilatu

- Intxaur frontoia estali
- Bulderraren erabilera zabaldu
- Zimiteyuko frontoia berritu eta txukun mantendu
- Futbol zelaiaren azterketa egin eta erabilpenaren araudia egin
- Ubare auzoan skate parkea sortu
- Ubare auzoan eta sortzen diren auzo berrietan kirol instalazio egokiak sortu (erabilera anitzeko zelaiak)

E. 2.4.8. Adin guztietako pertsonen zuzenduriko kirol programazioa landu (ikastaroak,...)

E. 2.4.9. Eskola Kirola programa landu

E.2.4.10. Herriko kirol elkarteekin ekitaldiak antolatu eta gainontzeko udalerriekin koordinatu

- Kirol Batzordea indartu eta herriko kirol elkarten arteko elkarlana bultzatu
- Herriko kirol elkarten lana indartu
- Herriko kirol elkarteekin batera antolatzen diren kirol ekitaldiak bultzatu
- Inguruko herrietako kirol ekintzekin koordinazioa lortu

E.2.4.11. Eskualdeko kirol beharrak Tolosaldea mailan koordinatu (aire zabaleko igerileku parkeduna ...) (UT21 Ernioaldea)



ZIZURKILGO EKINTZA PLANA



E.2.4.12. Eskualde mailako kirol jarduerak antolatzeko eskualdeko gainontzeko udalerriekin koordinazioan jarraitu eta hobetu. Tolosaldea mailan egingo den azterketa kontutan izanik, nesken kirol praktika sendotzeko neurriak hartu. (UT21 Ernioaldea)

E.2.4.13. Kultur programazio eta difusioaren koordinazioa bultzatu (UT21 Ernioaldea)

P.2.5. Herrian etorkinen integrazioa eta elkarbizitza sustatzeko programa

E.2.5.1. Ekintzak martxan jarri eskualde mailan burutzen ari den migrazio inguruko ikerketako emaitzak kontutan edukiz. (UT21 Ernioaldea)

P.2.6. Udalerrian euskararen normalizazioa eta hizkuntzen bizikidetasuna bultzatzeko programa

E. 2.6.1. Euskara Biziberritzeko Plana garatu

E. 2.6.2. Irakaskuntzan euskara nagusi izan dadin, eredu egokiak sustatu eta bermatu eta eskolan eta eskolatik kanpo euskararen erabilera eta presentzia nagusi izan dadin neurriak hartu.

E. 2.6.3. Herritarren euskalduntze / alfabetatzea sustatu eta beharrei erantzuna eman (ikastaroak herrian antolatu, diru laguntzak,.....)

E. 2.6.4. Familia giroan euskararen ezagutza eta erabilera bultzatu eta bermatu, bikote berriak euskaldunduz, haur jaioberriak dauzkaten gurasoen artean sentiberatasun kanpainak indartuz eta derrigorrezkoa ez den ikastaldian (0-3 urte) euskarazko haur eskolak bermatuz.

E. 2.6.5. Jarduera ekonomiakoetan (enpresak, merkataritza,....) euskararen erabilpena sustatu (sentikortuz, laguntza teknikoa eskainiz,.....)

E. 2.6.6. Aisia, kultura, erlijioa eta kirolean euskararen presentzia handitzeko neurriak hartu

E. 2.6.7. Administrazioan euskararen erabilera indartzeko neurriak hartu, Udaleko Erabilpen Plana egikaritzuz.

E. 2.6.8. Euskararen ordenantza garatu, hobetu eta bere egikaritza bermatu.

E. 2.6.9. Euskara bultzatzen duten gizarte eragileak lagundu

E. 2.6.10. Euskararen erabilpen neurketak aldiro egin eta erabilpena handitzeko programak martxan jarri

E. 2.6.11. Euskararen elikadura behar bezala bermatu alor desberdinetan (liburugintza, publizitatea, kulturgintza, hedabideak, e.a.).



ZIZURKILGO EKINTZA PLANA



P.2.7. Emakumea eta gizonaren arteko parekidetasuna bultzatuko duten politikak sustatu

E.2.7.1. Eskualdeko udalerrietan, Tolosaldea Garatzenekin koordinatuz, parekidetasun teknikari partekatu baten beharra hausnartu ondorengo ekintzak garatzeko: (UT21 Ernioaldea / Tolosaldea Garatzen)

- Emakumeei zuzendutako lanbide orientazio egokia sustatu.
- Emakumeak lan munduan aurkitzen dituen zailtasunei aurre egiteko laguntza zerbitzuak ezarri.
- Emakumeak langabezia erregistratzen duten erakundeetan izena ematera animatu.
- Etxekoandreen lana ondo baloratu.
- Herriko aktibitateetan emakumeen parte hartzea indartu.
- Udalean genero perspektiba zeharkako gaia izatea.



ZIZURKILGO EKINTZA PLANA



LE3. HIRI INGURUNEAREN ETA INGURUMEN ZERBITZUEN HOBEKUNTZA ETA PLANEAMENDU IRAUNKORRA BERMATU

P.3.1. Uraren zikloaren kudeaketa hobetzeko programa

- E.3.1.1. Ur edangarria baserri naiz etxeetara eraman
- E.3.1.2. Herriko iturriak (publikoak nahiz pribatuak) inbentariatu eta uraren kalitatea aztertu
- E.3.1.3. Bertako ur baliabideak aprobetxatu (Lepasoroko putzua)
- E.3.1.4. Herrian iturri publikoak jarri eta mantendu
- E.3.1.5. Lur azpiko urak babestu (mindekin kutsatu ez daitezen)
- E.3.1.6. Ur zikinak erre kara zuzenean isur ez daitezen neurriak jarri
- E.3.1.7. Herrigunetik urruti geratzen diren etxe / baserriak fosa septikora bideratu ditzaten laguntza plan bat diseinatu. Fosak garbitzeko / husteko Ur Partzuergoarekin hitzarmen bat burutu
- E.3.1.8. Ur sarean egin nahi diren hobekuntza eta inbertsioak aztertuko dituen Mahai Teknikoa osatu Gipuzkoako Urak Partzuergoarekin batera
- E.3.1.9. Uraren Arteztarauak ur hornidurarako exijitzen dituen betekizuna bermatu. (Gipuzkoako Foru Aldundia)
- E.3.1.10. Ur zikinen kolektorea eta araztegiaren obrak egin. (Gipuzkoako Foru Aldundia)

P.3.2. Energiaren kudeaketa iraunkorra sustatzeko programa

- E.3.2.1. EVErekin hitzarmena sinatu udal eraikinetan eraginkortasun energetikoari buruzko azterketak egiteko.
- E.3.2.2. Argiteria publikoaren energia eraginkortasunari buruzko azterketa burutu eta ondorengo neurriak hartu. Baita ere argi kutsadura murrizteko neurriak hartu.
- E.3.2.3. Energia arautegia sortu (energiaren erabilerarako, energia berriztagarrien ezarpenerako...)
- E.3.2.4. Auzo-komunitateetan energia ikuskaritzak egin daitezen bultzatu.
- E.3.2.5. Udal eraikinetan energia berriztagarriak ezartzeko aukerak aztertu
- E.3.2.6. Energia berriztagarrien inguruko informazioa zabaldu herritarren artean
- E.3.2.7. Gabonetako argiteriaren inguruko irizpideak ezarri



ZIZURKILGO EKINTZA PLANA



P.3.3. Hondakinen ingurumen kudeaketa hobetzeko eta kontsumo arduratsua sustatzeko programa

E.3.3.1. Etxeetako olio eta hondakin arriskutsuen bilketa erraztu

E.3.3.2. Hondakin bilketa puntuak hobetu egokitu

E.3.3.3. Hondakin bilketa arautuko duen Ordenantza atera eta kontrolatu

E.3.3.4. Gaikako bilketa eta birziklapena sendotu

E.3.3.5. Bilketa egunak zehazten diren euskarriak argitaratu eta bilketa puntuetan egutegiak jarri

E.3.3.6. GFAk Zubietan erraustegia jarritz gero, honek Zizurkilen izango lukeen eraginaren inguruko azterketa egin

E.3.3.7. Tolosaldean zabor bilketa mankomunatua martxan jarri eta kudeaketa sistema hobetzen jarraitu (edukiontzien banaketa antolatu,.....)(Tolosaldeko Mankomunitatea)

E.3.3.8. Eskualde mailako informazio kanpaina bat burutu, Mankomunitateak eskaintzen dituen zerbitzu guztien berri emateko eta sektore ezberdinetan jardunbide egokiak bultzatzeko (Tolosaldeko Mankomunitatea)

E.3.3.9. Enpresak informatu eta sentsibilizatzeko ahalegin berezia egin eta industriguneko hondakinak enpresa baten bidez biltzeko aukerak aztertu. (Tolosaldeko Mankomunitatea)

E.3.3.10. Eskualdean bigarren Garbigunea Ireki (Tolosako San Blas) (Tolosaldeko Mankomunitatea)

E.3.3.11. Konpostajearen esperientzia pilotua martxan jarri eta jarraipena egin (Tolosaldeko Mankomunitatea)

E.3.3.12. Enpresetako hondakin arriskutsuen kudeaketarako Tolosaldeako Mankomunitateak Gipuzkoako Merkataritza Bazkundearekin duen hitzarmena mantendu (Tolosaldeko Mankomunitatea)

E.3.3.13. Tolosaldea Garatzeni betelanetarako azpiegitura amankomuna sortzeko aukera azter dezala eskatu (UT21 Ernioaldea / Tolosaldea Garatzen)

P.3.4. Kalitate akustikoaren hobekuntzarako programa

E.3.4.1. Zarataren irizpidea udal kudeaketan txertatu

E.3.4.2. Zarata mapa burutu

E.3.4.3. Zarataren inguruko prestakuntza eskaini Udaltzainei

E.3.4.4. Zarata neurtzeko tresnak erosi

E.3.4.5. Herri mailako zarata arautu ordenantza baten bidez



ZIZURKILGO EKINTZA PLANA



P.3.5. Hiri inguruko kalitatearen hobekuntzarako programa

E.3.5.1. Hiri-garapen berrietan zona berde eta espazio publikoen kalitatea bermatu

E.3.5.2. Herriko lorategietan obra txikiak egin, leku puntualetan ureztatze sistema mekanizatuz

E.3.5.3. Gabezia urbanistikoei irtenbidea eman:

- Bulandegiko espaloia berritu
- Argiteri publikoa hobetu
- Bankuak eta zakarrontziak berritu
- Barandailak margotu eta puskatuta daudenak konpondu edo aldatu

E.3.5.4. Udalerrian dende horitutako gune bat eta inguruan aparkalekuak sortu

E.3.5.5. Zizurkil Goiko elizaren itxura hobetu

E.3.5.6. Sakabanatutako auzoak oinarriko azpiegituz hornitu (bidea, ura, saneamendua, telekomunikazioak,...)

- Herribideen mantenua egiteko plan bat egin
- Herribideen konponketa lanak egin
- Ur hornidura instalazioak berritzeko inbertsio plan bat egin
- Saneamendu sare orokorretik gertu geratzen diren etxe / auzoen ur zikinak sare orokorrera bideratu
- Sare orokorrera bideratu ezin diren ur zikinak fosa septikoetara bideratu daitezen bermatu

E.3.5.7. Banku sukurtsal bat jarri herrian

P.3.6 Planeamendu iraunkorra bermatzeko programa

E.3.6.1. Hirigintza planeamendua herriko errealitateari egokitu

E.3.6.2. Zizurkil Goian etxabeak dituzten etxeak eraiki, bertan zerbitzu enpresa nahiz saltokiak ezarri ahal daitezen

E.3.6.3. Kale, plaza eta auzoen izendatze lana burutu

E.3.6.4. Baserri izenak helbide bezala erabili izan daitezen lortu (diseminadoak desagerrarazi)

E.3.6.5. Hiri eremuen optimizazio funtzionala faboratu birgaitze, gune interstizialen, degradatu eta infraerabilien berrerabilpen eta berreskurapen, eta abarren bitartez:

- Ubare auzoaren urbanizazioa
- Pagamuño auzoaren urbanizazioa
- Ihartza auzoaren eraberritzea
- Trenbide azpiko tunelaren konponketa Pasusen



ZIZURKILGO EKINTZA PLANA



E.3.6.6. Garapen berriak balioa galdu duten eremu naturaletan lehenetsi: 33-33' gunea garatu (zerrategi zaharra)

E.3.6.7. Lurzoruaeren kutsadura kontutan hartu erabileren esleipenetan eta hirigintza erregulazio eta kudeaketan



ZIZURKILGO EKINTZA PLANA



LE4. BIOANIZTASUNA ETA PAISAIA BABESTU ETA UDALERRIKO GUNE ETA ELEMENTU ESANGURATSUAK EZAGUTARAZI

P.4.1. Bioaniztasuna eta paisaia babestu, berreskuratu eta ezagutarazteko programa

E.4.1.1. Bertako landaredia potentziatu

E.4.1.2. Abandonatutako lur-sailak berreskuratu eta kudeaketa iraunkorra eraman: larreak eta basoak

E.4.1.3. Motzaneko saila zaindu eta erabilera bat eman (mahaiak eta esertzeko bankuak jarri, iturria ur egokiarekin hornitu eta landatuta dagoen basoa txukundu)

E.4.1.4. Interes agrologiko handiko lurak babestu (PTSak definitzen ditu)

E.4.1.5. Eraikuntzak eta azpiegiturak landa paisaian txertatu (eraikin berriak egiteko eta baserriak eraberritzeko garaian)

E.4.1.6. Herriko paisaia zaindu. AASSen bitartez interes paisajistikoa duten eremuak babestu

E.4.1.7. Oria ibaiaren ingurumen errestiturazio integralaren alde egin, balore natural handiko eremu bat berreskuperatzeaz gain biztanleriarentzat elkargune eta aisiarako espazio bat bihurtuz. (UT21 Ernioaldea)

- Ibai ertzetako landaredia berreskuperatu (Haltzadi kantabriarra).
- Ubidean zehar arrainen migrazioarako aurkitu daitezkeen oztopoak ezabatu.
- Sedimentuen garbiketa bultzatu.
- Harri-lubeteen naturalizazioa sustatu.
- Espezie exotiko inbaditzailearen zabaltzea ekidin.

E.4.1.8. Eskualdeko gune natural interesgarriak eta bertako fauna eta landaredia identifikatu, zerrendatu eta ezagutzera eman. (Tolosaldea Garatzen)

P.4.2. Ondare historiko, etnografiko eta arkitektonikoa babesteko, berreskuratzeko eta ezagutarazteko programa

E.4.2.1. Herriko ondare historiko, etnografiko eta arkitektonikoa identifikatu, zerrendatu eta ezagutzera eman

- Herriko ondarea berreskuratu (auzolandegiak antolatu e.a.)
- Herriko ondarea eta historia biltzen dituzten euskarriak argitaratu
- Herriko ondarea bisitariari hurbiltzeko diptikoak, e.a. argitaratu



ZIZURKILGO EKINTZA PLANA



- Tradiziozko ekitaldiak berreskuratzeko lana egin (adb.: via cruciseko gurutzeak berreskuratu...)
- Kultur interesa duten ibilbideak markatu
- Baserri munduarekin harremana izan dezaketen gaiak jorratu (Baserriko Argia Beka bultzatu)



ZIZURKILGO EKINTZA PLANA



LE5. HERRIKO MUGIKORTASUN BEHARRAK IRAUNKORTASUN IRIZPIDEekin ASE

P.5.1. Herriko irisgarritasun baldintzak iraunkortasun irizpideak jarraituz hobetzeko programa

E. 5.1.1. Irisgarritasun plana berrikusi eta garatzeko baliabideak jarri

P.5.2. Mugikortasun iraunkorrerako plana egin eta gauzatzeko programa

E.5.2.1. Udaltalde mailako Mugikortasun Plana burutu eta honi lotutako hainbat ekintza martxan jarri: (UT21 Ernioaldea)

- Mugikortasun Iraunkorrerako Herri Batzarraren sorrera bultzatu
- Eskualdeko Mugikortasun Iraunkorraren aldeko Batzordearen sorrera bultzatu
- Mugikortasun Iraunkorraren aldeko udal hitzarmen bat sinatu
- Udaltaldeko industrialdeetako mugikortasuna aztertu eta landu

P.5.3. Garraiobide iraunkorrakoak bultzatzeko programa: garraio publikoa, bizikleta, oinezkoa

E. 5.3.1. Zizurkil Goian plaza oinezkoentzako bihurtu

E. 5.3.2. Beharrezkoa den kasuetan zebra bideak berriro ere margotu

E. 5.3.3. Zizurkil – Asteasu bitarteko bidegorri proiektua bultzatu

E. 5.3.4. Bizikletentzako aparkalekua jarri

E. 5.3.5. Zizurkil Goia – Behea konektatuko duen ibilbidea diseinatu eta mantendu

E.5.3.6. Intermodalitatea bultzatu Gipuzkoa Foru Aldundiarekin elkarlanean: (UT21 Ernioaldea / Gipuzkoak Foru Aldundia)

- Udaltalde mailako autobus zerbitzua osatzeko gestioak egin
- Trena eta autobusaren arteko loturak hobetzeko gestioak egin

E.5.3.7. Eskualdeko bidegorri sarea osatu (UT21 Ernioaldea / Gipuzkoak Foru Aldundia)

E.5.3.8. Bide-hezkuntza saioak ikastetxeetan antolatzen jarraitu: (UT21 Ernioaldea)

- Prestakuntza
- Beharrezko materiala erosi

E.5.3.9. 18 urtetik aurrerako ikasleei zuzendutako ikasketa zentroetara joateko garraio motaren bat sustatu. (Ibaetako unibertsitatera joateko, adibidez) (UT21 Ernioaldea)

E.5.3.10. Autoa konpartitzea sustatu, batik bat lantokietara eta ikastetxeetara heltzeko (UT21 Ernioaldea)



ZIZURKILGO EKINTZA PLANA



E.5.3.11. AHT proiektuaren inguruko informazio eta komunikazio zabal, garbi eta ulerterraza eskatu. (Tolosaldea Garatzen)

E.5.3.12. AHT sortu ditzakeen inpaktuak ahalik eta murriztenak izatea bultzatu, eskualdean sortu dezakeen barrera efektua saihestuz. (Tolosaldea Garatzen)

P.5.4. Motordun ibilgailuen zentzuzko erabilera bultzatzeko programa

E. 5.4.1. Bulandegi eta Ernio bidean trafikoak duen eragina gutxitzeko neurriak hartu (Foru Aldundiarekin koordinatuz)

E. 5.4.2. “Quak” eta motorrak mendiko ibilbideetan erregulatu

E. 5.4.3. Kamioiak aparkatu dezaten gunek bat egokitu

E. 5.4.4. Zizurkil goian ordezkoko aparkaleku bat egin

E.5.4.5. Sentikortze programen garapena ondorengo gaietan: (UT21 Ernioaldea)

- Trafiko arazoetan norberak duen arduraren inguruan kontzientzia hartzea.
- Ibilgailu pribatuaren erabilerak aparkaleku faltaren arazoan duen eraginaz ohartaraztea

P.5.5. Bide sarea hobetzeko programa

E. 5.5.1. Herri bideen inbentarioa egin eta egoera onean mantendu

E. 5.5.2. Udalak landu duen saihesbidearen proiektuaren proposamena herritarrei aurkeztu, ekarriko dituen onurak azalduz

E. 5.5.3. Zizurkilgo saihesbidea egin dadin presionatu Udaletxea eta herritarren elkarlanaren bitartez

E. 5.5.4. Ubare auzoan egingo den saihesbidearen trafikoa kontrolatu

E. 5.5.5. Zizurkil Goian saihesbidea egin



ZIZURKILGO EKINTZA PLANA



LE6. HERRITARREKIKO KOMUNIKAZIOA ETA HERRITARREN SENTIKORTZE ETA PARTEHARTZEA HOBETU

P.6.1. Udalak herritarrekiko duen komunikazioa hobetzeko programa

- E.6.1.1. Udaleko web orria garatu eta eguneratuta mantendu, baliabideak jarritz
- E.6.1.2. Auzo bakoitzean iragarki-taula bat jarri
- E.6.1.3. Tokiko Agenda 21en inguruko komunikazioa aurrera eraman. (UT21 Ernioaldea)
- E.6.1.4. Eskualde mailako Tokiko Agenda 21 web gunea bultzatu. (UT21 Ernioaldea)

P.6.2. Herrian garatzen diren ekintzetan herritarren partehartzea areagotzeko programa

- E.6.2.1. Auzoko elkarteak sortu daitezen bultzatu / lagundu
- E.6.2.2. Herritarrek herri lanetan inplikatu: Auzolanak
- E.6.2.3. Haurren partaidetza udal erabakietan kontutan hartu (Eskolako Agenda 21aren bitartez)
- E.6.2.4. Gizarte sektore ezberdinetara zuzendutako hezkuntza programak diseinatu eta garatu partehartzea sustatzeko. (UT21 Ernioaldea)

P.6.3. Iraunkortasun sentikortzea sustatzeko programa

- E.6.3.1. Iraunkortasun eta gizabidearekin zerikusia duten gaien inguruko kontzientziazio kanpainak gauzatu Udaltalde mailan, Udaltaldez kanpoko gainontzeko herriekin koordinatuz, batik bat, Tolosarekin. (UT21 Ernioaldea)
 - Ur kontsumo arduratsu bat sustatzeko sentsibilizazio kanpainak bultzatu
 - Energiaren kontsumo iraunkorra sustatzeko sentsibilizazioa kanpainak sustatu.
 - Ibaiko landaredi eta ertzetan metatzen diren hondakin ugariren arazoa saihesteko herritarren sentsibilizazioan ekintzak garatu eta garbitzeko ekintza garatu.



ZIZURKILGO EKINTZA PLANA



LE7. UDAL KUDEAKETA HOBETU IRAUNKORTASUN IRIZPIDEAK TXERTATUZ

P.7.1. Herrian garatzen diren jardueren ingurumen kontrolerako programa

E.7.1.1. Sailkatutako jardueren eta herrilanen ingurumen kontrola ziurtatu jarduera eta irekitze lizentzien egoeraren ezagutze, eguneratze eta jarraipenaren bidez

E.7.1.2. Udalerriko enpresetan ingurumen jardunbide egokiak sustatu eta ingurumen ziurtapenaren inguruko informazioa eskaini

P.7.2. Udal kudeaketan iraunkortasun irizpideak txertatzeko programa

E.7.2.1. Udal eraikinen beharrei eta zerbitzuen banaketari buruzko hausnarketa egin

E.7.2.2. Oholtzaren eta gainerako materialen (mahaiak eta eserlekuak) erabilerari buruzko araudia landu

E.7.2.3. Kanposantuari buruzko araudi berria landu

E.7.2.4. Iraunkortasun prozesuaren jarraipen, kontrol eta planifikaziorako udal organo bat finkatu. Tokiko Ekintza Plana udal kudeaketako erreminta gisa integratu

E.7.2.5. Udal eraikinetan eta zerbitzuetan iraunkortasun eta ingurumen irizpideak txertatu eguneroko kudeaketan

E.7.2.6. Jarduera kulturalen planifikazio eta garapenean ingurumen irizpideak barneratu (txosnak, tabernak...)

E.7.2.7 Udal erosketan iraunkortasun irizpideak barneratu: produktuak identifikatu eta ezarriko diren iraunkortasun irizpideak definitu

E.7.2.8. Udalak lanen kontratazio prozesuetan iraunkortasun irizpideak barneratu

E.7.2.9. Politiko eta teknikarientzat iraunkortasunarekin lotura daukaten gaietan prestakuntza eskaini (UT21 Ernioaldea)

P.7.3. Arriskuen analisia eta kudeaketarako programa

E.7.3.1. Larrialdietarako herritar boluntarioen datu basea sortu ("plan de apoyo de protección civil")

E.7.3.2. Udalerri mailako larrialdi plana garatu

E.7.3.3. Larrialdi Planak egin udal jabegoko instalazioetan

E.7.3.4. Gipuzkoako Foru Aldundiarekin koordinatuz, baso suteei eta uholdeei aurre egiteko prebentzioa indartu eta baliabideak jarri



ZIZURKILGO EKINTZA PLANA



P.7.4. Instituzioen arteko koordinazioa bultzatzeko programa

E.7.4.1. Tokiko Ekintza Planen jarraipena eta Udaletan iraunkortasun irizpideak txertatzeko Udaltaldearen Batzorde iraunkorra finkatu. (UT21 Ernioaldea)

E.7.4.2. Tolosaldea mailako herrien artean proiektuak diseinatu eta martxan jartzeko helburuarekin laguntza eta baliabideak lortu ahal izateko Eusko Jaurlaritza, Gipuzkoako Foru Aldundia eta entitate publikoekiko (IHOBE, EVE...) informazio/komunikazioa mekanismoak indartu. (UT21 Ernioaldea)

E.7.4.3. Tolosaldea Garatzen erakundeak herri txikienganako eskaintzen duen atentzioa areagotu eta indartu. (UT21 Ernioaldea / Tolosaldea Garatzen)